

# Terrorismoa Espainian



## "OROIMENA ETA TERRORISMOAREN PREBENTZIOA" HEZKUNTZA PROIEKTUA. 1NGO UNITATE DIDAKTIKOA

### ARGITARATZAILEA

Dirección General de Apoyo a Víctimas del Terrorismo. Ministerio del Interior

Centro Nacional de Innovación e Investigación Educativa. Ministerio de Educación y Formación Profesional

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

Fundación Víctimas del Terrorismo

### DISEINUA

Dr. Drumen

### ARGAZKIAK

Efe agentzia

Fidel Raso / *Diario 16*

Luis Alberto García / *El País*

*El Correo*ko artxiboa

Guardia Zibila

Terrorismoaren Biktimen Oroimen Zentroko Artxiboa

Bilboko Udal Artxiboa. *La Gaceta del Norte* funtsa

---

NIPO Mº del Interior: 126-19-059-1

NIPO Mº Educación y Formación Profesional: 847-19-047-3



Unitate didaktiko hau irakaslearen esku jarritako tresna oso gisa aurkezten dugu, gelan zuzenean landu dezan. Eduki osoa edukiko du eskura, baita aplikazio didaktikoa ere, testu-liburu batean sartua izateko prestatuko litzatekeen bezala. Lehenik eta behin, proiektua izan den saio bakoitzean egin beharreko lana barne hartzen du. Amaieran proposamen didaktiko osoa dago, edukiaren programazioaren barruan aldaketarik egin behar izan gabe sartzeko.

Edukien garapena aurkezpen batekin lagunduta dator, ikasleentzat material fotokopiagarria erabili nahi ez den kasuan proiektatzeko.

# AURKIBIDEA

## 1. SAIOA 04

Sarrera

Zer da terrorismoa?

Jarduera; bahiketa terrorista bati buruzko  
ikerketa

## 2. SAIOA 10

Francoren diktadura

Jarduera: Jesusa Ibarrola eta Fermín Garcés  
Hualderen lekukotzak

## 3. SAIOA 16

Trantsizio demokratikoa

Jarduera: Conchita Martínen testua

## 4. SAIOA 22

Demokrazia

Jarduera: Juan Carlos Cabrero Rojori  
elkarrizketa eta María Luisa Pérezen  
lekukotza grabatua

## GEHIAGO JAKITEKO 32

Online baliabideak

Bibliografia

## PROPOSAMEN DIDAKTIKOA 36



# 01.

# SAIOA



Lehen saio honetan terrorismoari buruzko —gaur egungo fenomeno gisa— sarrera bat sartu dugu. Jarraian Espainian jardun duten talde terroristak beren printzipio ideologikoen arabera sailkatu ditugu.

Saio honetan diapositibak proiektatutako dira edo dagozkion fotokopiak emango. Honako hau proposatzen diegu ikasleei: beren koadernoetan terrorismoaren funtsezko ezaugarriak kopiatzea eta nabarmendutako hitz eta esaldiak beren hitzekin definitzea. Halaber, dauden edo egon diren talde terrorista motak eta haien ezaugarri nagusiak idatzi beharko dituzte.

Amaierako jarduera bezala, bahiketari buruzko —arma terrorista gisa— ikerketan lan bat proposatuko dugu.



ETAk 1990ean enpresari bati bidalitako estortsio-gutun baten kopia. Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren Artxiboa.

## SARRERA

Terrorismoak modu tragikoan markatu du Espainiaren arestiko historia XX. mendeko hirurogeiko urteetatik. Unitate didaktiko honetan fenomenoaren zertan datzan aztertuko dugu lehenengo eta behin. Ondoren, haren garapean sartuko gara, izan dituen hiru fase ezberdinetan zehar:

Francoren diktadura

Demokraziarako trantsizioa

Epealdi demokratikoa

Terrorismoak hainbat arloren gainean eragina dauka:

**Politika:** terrorismoak printzipio demokratikoak urratu, eta parte-hartze politiko aske eta berdinen aukerak gutxitzen ditu.

**Ekonomia:** atentatuek kostu material eta segurtasunezkoak eragiten dituzte.

**Gizartea:** giza eskubide oinarrizkoenak erasotzean, terrorismoak elkarbizitza hondatzen du.

Eta, batez ere, terrorismoak **biktimei** eragiten die: hildako pertsonen, zauritutakoen, bahitutakoen, estorsionatuen eta mehatxatuen, baita haien inguruari ere (familia eta lagunak).

BIKTIMAK DIRA  
INDARKERIAREN  
ERABILERAREN  
ONDORIO TRAGIKOENA.  
HAIEN BEGIRADA  
LAGUN IZANGO DUGU  
IBILBIDE HONETAN  
GUZTIAN ZEHAR,  
HAIEN ESPERIENTZIAK  
JASOTZEN DITUZTEN  
LEKUKOTZEN  
IRAKURKETAREN BIDEZ.

## ZER DA TERRORISMOA?

Beste fenomeno konplexu batzuekin gertatzen den bezala, terrorismoaren hainbat definizio daude. Adituek ez dute adostasunik lortu terrorismoa zer den zehazteko orduan, baina ia kasu guztietan proiektu politiko jakin bat indarrez ezartzeko tresna baten aurrean gaudela azpimarratzen dute, eta, hori lortzeko, aurkariari beldurra sorrarazten zaie. Hona terrorismoaren zenbait osagai laburbilduta:

### INDARKERIA KLANDESTINOA

Terrorismoak modu sekretu edo ezkutukoan jarduten du justiziaren ekintza saihesteko. Klandestinitateak, berriaz, taldearen isolamendu eta erradikaltasun handiagoa eragiten du.

### IZU GIROA ERAGITEN DU

Hitzaren etimologiak adierazten du terrorismoa "terror" hitzetik (izutik) datorrela, eta horixe da, hain zuzen ere, baliabide honen bidez sorrarazi nahi dena: aurkariaren artean ikara bizia.

### HELBURU POLITIKOAK INPOSATZEA BILATZEN DU

Terrorismoaren atzetik botere proiektu bat dago, indarraren erabileraren bidez menderatu nahi den erakunde edo organizazio baten aurka zuzendua.

### PROPAGANDA- ERAGINA

Talde terroristek beren atentatuek eragiten duten inpaktua baliatzen dute beren eskakizunak zabaltzeko.



Dozenaka pertsonak beren esku zuriak erakusten dituzte "Con las víctimas, con la Constitución, para la derrota del terrorismo" lelopean Madrilen, 2004ko M-11ko atentatuaren ondotik, deitu zuten manifestazioan. Argazkia: Efe agentzia.

Terrorismoak maila ezberdinean eragin die gure inguruko herrialde guztiei. Espainian ideologia ezberdineko erakunde terroristek jardun izan dute:

### NAZIONALISTA ERRADIKALAK

Joera horretakoa da banda terrorista odoltsu eta urtetsuena. ETA, alegia, *Euskadi Ta Askatasuna*. Erakunde honen hainbat adar 800 pertsona baino gehiagoren heriotzaren arduradunak dira 1968a eta 2010a bitartean, Euskal Herriaren independentzia helburu nagusitzat zuen kanpaina basati baten barruan. Gainera, Katalunian *EPOCA*-k (hiru biktima mortal) eta *Terra Lliure*-k (bat), Galizian *Exército Guerrilheiro do Povo Galego Ceive*-k (bi) eta Kanarietan MPAlAC-ek (bat) ETArek mailara iritsi nahi izan zuten.

### ULTRAESKUINA

Mota honetako terrorismoa hainbat erakundetan zatikatua egon zen: BVE (Batallón Vasco Español), Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) edo GAE (Grupos Armados Españoles). Haien helburu nagusiak Francoren bezalako diktadura bat itzularaztea eta ETArri erantzutea zen, kontrako zeinuko terrorismo batekin. 60 bat atentatu leporatzen zaizkie 1975 eta 1982 urteen artean.

### EZKER MUTURRA

Kategoria honen adierazle nagusia GRAPO-koak izan ziren, Grupos Revolucionarios Antifascistas Primero de Octubre delakoak. 1975ean sortua, jardunean aritu ziren XXI. mendeko lehen hamarkadara arte. Errepublikan sozialista bat ezarri nahi zuten indarraren bidez Espainian. 80 bat hilketaren erantzule dira.

### YIHADISTAK

*Shariaren*, lege islamikoaren, interpretazio ortodoxo baten pean dagoen kalifa-herri bat ezartzea dute helburu. Espainian joera honen lehen atentatua 1985ean gertatu zen, El Descanso jatetxean. Al-Qaedaekin lotura zuten zenbait zelula yihadistak gure historiako sarraskirik handiena eragin zuten: Madrilen 2004ko martxoaren 11n izandako erasoak, non 193 pertsona hil eta ehunka zauritu izan ziren. Duela gutxiagokoak dira Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuak, 2017ko abuztuaren 17koak, 16 pertsona hildako eta ehunetik gora zauritutako biktima kopurua utzi zutenak. Ekintza terrorista horiek erakusten dutenez, mehatxu yihadistak presente jarraitzen du Espainian, beste herrialde askotan bezala.

Behin terrorismoa zer den badakigula, honako hau galde diezaiokegu geure buruari: zer modutan eragin dio Espainiari aldi historiko ezberdinetan zehar? Ez da gauza bera geure burua Francoren diktaduraren testuinguruan edo demokraziaren urteetan kokatzea, eta bi epealdi horiek trantsizioarekiko ezberdinak dira.



1985eko apirilaren 12an lehegailu batek El Descanso jatetxea suntsitu, eta 18 biktima mortal eta zauritu ugari eragin zituen. Argazkia: Efe agentzia.



ALDAYA  
LIBERTAD  
TRAS PAGAR

*Eskola baten horman ETAk bahitutako Jose María Aldaya enpresariaren aurka egindako pintada. Terroristek erreskate bat eskatzen zuten Aldayaren askatasunaren truke. Bilbo, 1995. Argazkia: Fidel Raso/Diario 16.*



**JARDUERA**

## Bahiketa terrorista bati buruzko ikerketa

Bilatu informazioa bahiketa terrorista bati buruz. Ekarri hurrengo eskolara gertaera horiei buruzko prentsako ebakin bat. Eta, ondoren, egin itzazu galdera zehatzak: nor izan zen bahitutako pertsona, noiz, non eta nortzuek harrapatu zuten, zer eskatzen zuten trukean, zer ekimen egin zituzten bai familiak bai lagunek hura askatzen saiatzeko... Topatu al duzu haren argazkirik?

# 02.

# SAIOA



Bigarren saio honetan terrorismoaren garapen kronologikoa hasiko dugu, Francoren garaia ardatz hartuta. Sarrera historiko labur bat egin beharko da, frankismoari buruzko unitate didaktikoaren edukiak laburbilduko dituen, baldin eta dagoeneko frankismoa irakatsi bada. Beharrezkoa da terrorismoaren jaiotza fenomeno moderno bezala kokatzea Europaren barruan egon zen muturreko ideologiaren aldarrikapen biolento baten testuinguruan. Jarraian, ETaren lehen ekintzei helduko diegu.

Jardueren atalean duela gutxi egindako bi elkarrizketaren pasarteak eskainiko dira: Espainian terrorismo mortalaren lehen biktima izan zen neskaren amari egindakoa; eta ETaren lehen biktima izandako José Pardines guardia zibilaren hilketari eragozten saiatu zen kamioilariari egindakoa. Ondoren, zenbait galdera planteatzen dira ikasleek beren koadernoan jaso ditzaten, eta terrorismoko biktimen oroitza egiteko moduei buruzko lan erraz eta irudidun bat proposatzen da.



Begoña Urroz Ibarrola eta bere gurasoak, Juan eta Jesusa, bere bataioko argazki batean. Argazkia: El País.

## FRANCOREN DIKTADURA

Frankismoa 1939tik 1975era arte luzatu zen, gerra zibilaren amaieratik diktadorearen heriotzaraino. Askatasun faltaren egoerak espainiar guztiei eragiten zien, batez ere diktadurari atxikiak ez zeudenei. Espainiar nazionalismo porrokatua, "Caudillo"arekiko (Francorekiko) gurtza, alderdi bakarrearen erregimena (Movimiento Nacional delakoa) eta nazionalkatolizismoa ziren, beste zenbait alderdiren artean, diktaduraren ezaugarri nagusiak.

1945ean Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Europak oparotasun epealdi

bat ezagutu zuen. Espainiako, Portugaleko eta Greziako diktadurak salbuespen bat ziren mendebaldeko testuinguruan, non demokraziak finkatu egin ziren. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan muturreko ideologia batzuek indarkeriaren erabilera defendatu zuten politikan beren helburuak lortzeko. Hala gertatu zen bai herrialde demokratikoetan bai diktadura bizi zuten beste zenbaitetan ere. Lehenengoan artean, adibidez, Italian Brigada Gorriak bezalako ultraezkerreko organizazio terroristak sortu ziren, baita eskuin muturrekoak ere, Ordena Berria izenekoa kasu,

diktadura faxista berrezarri nahi zuena. Erresuma Batuan IRA, *Irish Republican Army* (Irlandako Errepublikako Gudarostea), berragertu zen, eta hirurogeiko urteen amaieran kanpaina terrorista bat abiarazi zuen britainiarrek Ipar Irlandatik kanporatzeko. IRA da Europen biktima mortal gehien eragin dituen erakunde terrorista: 1.700dik gora. Kontrako aldean, Ipar Irlanda Erresuma Batuen barruan jarraitzearen alde zeuden erakunde terroristen artean UVF (Ulsterreko Boluntarioen Indarra) zegoen, 500 bat pertsona hil zituen 1966tik 1990eko hamarkadara arte.



*ETAk jarritako lehergailu batek bizia kendu zien Espainiako Gobernuko presidentea zen Luis Carrero Blancori, honen bizkartzain Juan Antonio Buenori eta autoaren gidari lanetan zebilen José Luis Pérezi. Atentatua gertatu zen lekua, Madrilgo Maldonado eta Claudio Coello kaleen arteko izkinan (1973-12-20). Argazkia: Efe agentzia.*

Francorena bezalako diktaduretan hainbat erakunde terrorista sortu ziren. Espainian terrorismoaren lehen biktima mortala Begoña Urroz haurra izan zen, 1960an. DRILek, Directorio Revolucionario Ibérico de Liberaciónnek, Donostiako tren-geltoki batean jarritako bonba baten leherketak harapatu zuen. Gainera, Franco hil baino lehenago, GRAPOkoak, inspirazio ul-

traezkerrekoak, eta ETA, euskal nazionalismo erradikaleko ideologia zuena, jaio ziren. PNVrekin hautsi eta gero, 1958an sortu zen ETA. Haren lehen biktima mortala José Antonio Pardines Arcay trafikoko guardia zibila izan zen, 1968an.

Era honetan, ETAk indarkeria kiribil bati hasiera eman nahi izan zion, ere-

du honi jarraiki: lehenik eta behin, atentatuak egin; bigarrenik, diktaduraren erantzun oldarkorra eragin; eta, hirugarrenik, biztanleria euskaldun eta nafarraren artean bere kausarekiko begikotasun korrante bat sortu. Gutxi aurreikusitako orduan terrorismoak diktadura ostean jarraituko zuela, hartan baino indar handiagoarekin.

Askotan esan izan denaren aurka, terrorismoa agertzea ez zen izan Espainian diktadura bat zegoela-eta eratorritako ondorio saihestezin bat. Dagoeneko ikusi dugu terrorismoa data horietan beretan sortu zela, baita gure inguruko zenbait herrialde demokratikotan ere. Gainera, oposizio antifrankista osatzen zuen alderdi eta sindikatuen gehiengo handiak ez zuen hilketara jo diktaduraren aurka egiteko, tresna baketsuetara baizik, hala nola grebak, propaganda edo manifestazioak. Terrorismoa gutxiengo baten tresna bat izan zen, ondorio konponezinak eragin zituenena. ETAren kasuan, 43 pertsona hil zituen 1968 eta 1975 urteen artean.

Paradoxikoki, metodo biolentoen aldeko aukera horren ondorioz, terroristak ustezko jomugatzat zuten erregimenaren antzekoak bihurtu ziren. Terrorismoak gizatasuna kentzen du, biktimak eragiten ditu, eta, horregatik, inoiz ez du justifikazio moralik. Terrorismoaren biktima guztiak dira errugabeak: ez zuten merezi izan eragin zieten mina.



*José Pardinesen ehorzketa Malpica de Bergantiños-en (A Coruña), 1968ko ekainean. Argazkia: Bilboko Udal Artxiboa (BUA), La Gaceta del Norteren funtsa.*

## JARDUERA

# Jesusa Ibarrola eta Fermín Garcés Hualderen lekukotzak

Bi lekukotza aurkezten ditugu irakurtzeko eta iruzkintzeko. Lehenik eta behin, Espainian terrorismoaren lehen biktima mortaltzat jotzen den 22 hilabeteko Begoña Urroz haurraren (1960an hila) amaren, Jesusa Ibarrolaren, lekukotza.



Fermín Garcés Hualde, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuaren 75. urteurrenean kondekoratua. Valdemoro, 2016/04/22. Argazkia: Guardia Zibila.

*“Nire izeba batek, Soledad Arruti Etxegoyenek, Donostiako Amarako geltokiko kontsignan lan egiten zuen. Hari laguntzera joaten nintzen, pezetatxo batzuk irabazteko. Egun hartan, nire umea harekin utzi, eta inguruko denda batera joan nintzen umearentzat zapata batzuk eroatera, Nafarroara joateko. Itzuli nintzenean sekulako nahaspila zegoen. Bonba batek eztanda egin zuen! Nire alaba kiskalia zegoen, eta beste zenbait pertsona, horien artean nire izeba, zaurituta. Izugarria izan zen. [...] Nire izeba Soledad zaurituta zegoen, eta ezin zuen lanik egin. Hortaz, neuk ordezkatu nuen osatu zen arte. Bolada horretan, ez nion inori uzten kontsignan maleta bat sartzen, ez bazen nire aurrean ireki eta barrukoa erakusten bazidan. Jendea kexu zen, eta hori zergatik egin behar zuten galdetzen zidaten. Batzuek kontra egiten bazuten, guardia batzuk etortzen ziren ekipajea aztertzeraz”.*

*El País, 2010eko urtarrilak 31.*

1968aren ekainaren 7an odol hotzean egindako ETaren lehen krimenaren nahigabeko lekuko bihurtu zen Fermín Garcés Hualde kamioilariaren elkarrizketaren zati baten irakurketa proposatzen dugu baita ere. Bere kamioitik jaitsi, eta José Pardines Arcayren hiltzaileei aurre egin zien:

*“Ikusi eta pasatu nuena ez zait sekula ahaztuko. Frantziatik Madrilera, Alcorcónera, nentorren, eta Villabonara iristean desbideraketa batera bidali gintuzten. Kilometro erdira trafikoko guardia zibil bat zegoen. Handik igaro, eta guardia atzean utzi nuenetik kilometro bat egin eta gero, igeltsutegi batera heldu nintzen. 15 metrotara guardia zibil bat ikusi nuen bi gazterekin; hizketan ari ziren guardia zibilak autoa begiratzen zuen bitartean. Tiro bat, “Bang!”, entzun nuen hamar bat metrotara. Ballestina izan zela pentsatu nuen, zeren eta hausten denean pistola baten tiroaren antzeko puzkerra egiten du.*

*Aurrera begiratu, eta guardia lurrera hilik nola erortzen zen ikusi nuen. Kamioitik jauzi egin nuen haien bila, eta lau tiro gehiago jo zizkioten guardiari. Azken honek bere motorra gazteen autoaren aurrean jarrita zuen. Haiak bi metro zituzten, eta nik hamar, baina 37 urte nituen eta garaiz heldu nintzen. Sarasketa sorbaldatik heldu nuen, zeina gidari jarri baitzen, eta esan nien: ‘Geldi, hiltzaileak, bidelapurrak, geldi hemen’. Seat 850aren leihotik hura ateratzen saiatu nintzen, baina Etxebarrietak buruan jarri zidan pistola (keinua egiten du), eta amore eman behar izan nuen.*

*Orduan, autotik ziztu bizian urrundu, eta nire kamioira joan nintzen badaezpada ere, niri tiro bat jotzeko asmoa baldin bazuten”.*

## PROPOSATUTAKO JARDUERA

Pasarteei buruzko galderak: zergatik uste duzu ia berrogeita hamar urte behar izan zituela Begoñaren amak bere alabaren heriotzaz publikoki hitz egiteko? Arakatu nola aldatu zen Fermín Garcésen bizitza ETaren hilketaren lekuko izan eta gero.

2010etik aurrera, ekainaren 27 bakoitzean, Begoña Urrozen heriotzaren urteurrenean, Terrorismoaren Biktimen Eguna ospatzen da Espainian. Beste zer modu bururatzen zaizkizu terrorismoko biktimen oroitzapena egiteko? Ezagutzen duzu zure herrian edo hirian, edo zure inguruan, terrorismoko biktimei eskainitako oroimen lekurik? Erantzuna baiezkoa bada, hura bisitatzea proposatzen dizugu, argazki bat ateratzea edo Interneten informazioa bilatzea. Deskriba ezazu. Galdetu zer adierazten duen, zer sinbologia duen, noiz egin zuten, nork diseinatu zuen, norena izan zen ekimena, nola joan zen inaugurazioa. Zer sentimendu eta emozio izan dituzu hura ikustean?

# 03.

## SAIOA

ESTAMOS HARTOS DE  
VIOLENCIA Y ASESINATO

PARTIDO SO  
DE  
EUSK



Hirugarren saioa Espainian bizi izandako trantsizioaren errebaso historiko batekin hasiko dugu. ETA erakunde terroristak protagonismoa nagusia izaten jarraitu zuen, eta GRAPO eta eskuin muturreko taldeak gehitu zitzaizkion.

Jardueren atalean, aukeratutako pasarteak Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroko web orrian argitaratutako testu batetik dator, ETAk erail zuen Pedro Antonio Blanco teniente-koronelaren alargunak, Conchita Martínek, idatzia hain zuzen ere. Gelan egitekoak diren jardueraz gain, ariketa bat planteatzen dugu etxerako lan bezala edo eskola-orduan informatikako gelan egiteko. Azken kasu honetan, ariketa testuarekin laburtu beharko da.

## TRANTSIZIO DEMOKRATIKOA

1975eko azaroan Francoren heriotzak zalantza eta esperantza betetako epealdi bati hasiera eman zion Espainian. Diktadurak 40 urte iraun zituen, eta, urte horietan, Francok modu autoritarioan erabili zuen boterea. Bere aldekoek Francok sortutako erregimenak jarraitzea nahi zuen, baita hura hil eta gero ere. Hala ere, biztanleriaren gehiengoak aldaketa bat nahi zuen, Espainiak, Europako esparruan, salbuespen diktatorial bat izateari utz ziezaion.



*La Parra tabernaren barruko ikuspegia, Bartzelonako Fabra i Puig pasealekutik ikusia. GRAPOko bi kidek Justiniano Fernández Pesado eta Francisco Montenegro Jiménez guardia zibilen aurka egindako tiroak hauteman daitezke leihoretako batean. Bi guardia zibilak kafea hartzen ari ziren tabernan, eta hilik gertatu ziren (Bartzelona, 1981/05/04). Argazkia: Efe agentzia.*

Gehiengo horrek bilatutako demokraziak, beste zenbait gauzaren artean, indarkeriaren erabileraren monopolioa Estatuak edukitzea zekarren, bai eta legeak errespetatuz erabiltzea ere, eta lege horien buru Konstituzio bat egon behar zen.

1976tik aurrera, erregimen frankistaren erakundeak eraisteko eta askatasunak pixkanaka eraikitzeke prozesu bat hasi zen. Ondoz ondoko indultu eta amnistiei esker, 1977aren amaieran preso politiko guztiak kartzelatik kanpo zeuden, baita ETA edo GRAPO bezalako erakunde terroristen kideak ere, hilketaz akusatutak barne. Halaber, erregimen frankistaren izenean burututako krimenak amnistiatura geratu ziren. In-

darkeriaz betetako iragana gainditzea zen asmoa, une horretan oso presente zeuden zenbait printzipioren mesedetan, hala nola berradiskidetzea eta adostasuna. Hala ere, terrorismoaren aldeko apustua egin zutenek uko egin zioten hiltzen uzteari.

Hiritarrek 1978ko abenduan onartu zuten erreferendum bidez Espainiako Konstituzioa, eskubide eta askatasunen sistema berriaren oinarria zena. Hurrengo urteetan, naziotasun eta eskualde ezberdinen autonomia estatutuen onarpenari esker, autonomien Estatuak garatzen joan zen. Deszentralizazioa frankismoaren garaiko uniformizazio politiko eta kulturala ordezkatzera zetorren.



*Guardia Zibilaren lehegailu-teknikari bat Esteponan (Malaga) dagoen 340 errepede nazionalerako tarte bat ikuskatzen, ETArekin bonba-mehatxu bat dela eta. Argazkia: BUA, La Gaceta del Norteren funtsa.*





*Trantsizioan egin zen ETaren aurkako lehen manifestazioa, Portugaleten (Bizkaia), 1978/06/28. Goiz horretan ETak José María Portell kazetaria hil zuen. Bertaratutakoak, Alderdi Komunistak deituta, ez ziren gehiegi eta pankarta bat zeramaten, non honako hau irakur zitekeen: "Indarkeriaz eta hilketez nazkatuta gaude". Argazkia: BUA, La Gaceta del Norteren funtsa.*

Gutxiengo batek demokrazia eraikitzeko prozesu hau desegonkortu nahi izan zuen, gainerakoei beren ideiak indarrean ezartzeko. Alde batetik, frankismoaren nostalgikoak diktadurara itzultzen saiatu ziren, eta lortzen ari ziren eskubideak eraso zituzten, hala nola adierazpen askatasuna. Adibidez, 1977an Triple Ak *El Papus* aldizkari satirikoaren erredakziora bonba-pakete bat bidali, eta Joan Peñalver atezaina hil zuen. Bestalde, GRAPOkoei beren iraultza partikularra egin nahi izan zuten armen bidez, eta polizia, guardia zibil, enpresari... mordoa hil zuten.

Demokrazia jaio berriaren aurkako mehatxu nagusia ETA izan zen, guztien artean erakunde hilgarriena eta babes handiena izan zuena, HB, *Herri Batasuna*, izeneko hauteskunde-koalizioaren inguruan ardatzua. ETA justifikatu eta babesten zuen ingurunea funtsezkoa izan zen haren bizi-raupenerako. Hala, ETak eta kideko beste

erakunde batzuek 11 pertsona hil zituzten 1977an, 66 1978an, 80 1979an eta 96 1980an, trantsizioan zehar Espainian hilketa terrorista gehien izan ziren urtea. Demokratizazioaren mugari nagusienak lortzen ari ziren aldi berean (amnistia, Konstituzioa, autonomia estatutuak), terroristek bere ahaleginak areagotu zituzten prozesua ezegonkortzeko.

Urte haietan (1975-1982) baziren muturreko gutxiengo jakin batzuk, beren arerio politikoak eskubidedun pertsonak bezala ez, eta beren helburu partikularrak lortzeko deuseztatu beharreko etsai bezala ikusten zituztenak. 1981eko otsailaren 23an Gudarosteko alderdi atzerakoiek estatu kolpe bat jo zuten. ETak militarren, polizien eta abarren aurka egiten zituen atentatuak izan ziren kolpisten aitzakia nagusienetako bat. Azkenik, demokrazia nagusitu zen, baina trantsizioa ez zen epealdi baketsua izan, indarkeria astindu handikoa baizik.

**JARDUERA**

## Conchita Martínen testua

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren web orrian agertzen den Conchita Martínen “Preguntas que no siempre se formulan” lekukotzaren pasarte bat aurkezten dugu ikasleek irakurtzeko eta iruzkintzeko. Conchitak, ETAk 2000. urtean eraildako Pedro Antonio Blanco teniente koronelaren alargunak, bizi izan zuten mehatxu egoera kontatzen du:

*“Ni eroso bizi nintzena Gaztelako nire hiri txikian, eta, halako batean, nire aitak bera identifikatzen zuen panpinatxoa kendu zuen autoaren atzerako ispilutik, bai eta etxeke atean zegoen txapa ere (ohikoa zen hura edukitzea). Horrek guztiak helburutzat seinalatzen zuen berez. Orduan, bai, hura zergatik egin zuen galdetu nion, eta nire ama izan zen erantzun zuena, suhartasunik gabe. Laburki jakinarazi zidan ezein guardia zibil atentatu terrorista baten jomuga izan zitekeela. Askoz geroago, Lurreko Gudarosteko ofizial batekin ezkondu nintzenean, alertazko eta kezka besteko egoera batean sartu nintzen.*

*Ignominiak gora egiten zuen bitartean, gure askatasunaren egoera txikiagotuz zihoan, eta asko mugatu zuen gure segurtasuna. Bai nire seme-alabak bai ni horretara moldatu ginen. Neu hasi nintzen haiek eskolara eramaten, autoa garaje batean gordetzen genuen, eta linterna oso handi bat erosi genuen, beti maletategian zihoana. Goizero, etxetik ateratzen ginenean, edo asteburuetan, haurren kirol-jarduerak egiten ziren geure klubera abiatu baino lehen, inor ez zen autora igotzen Pedrok edo nik autoaren azpialdea linterna kutun harekin begiratu arte, aurreko atean sarrailek bortxa zeinurik ote zuten behatu gabe. Gutunak bulegoan baino ez genituen irekitzen, are banketxeko jakinarazpenak ere.*

*Hala ere, zera esan behar dut, nahiz eta nik ez nion uzten haiek eskutik eramaten, ez genion uko egin egitea pentsatuta genuen horri. Ez zuen inoiz esan etxean geratzen zenik, eta ez zituen mugatu erosketako arratsaldeak, lagunekin zituen bilerak. Nahi gabe, modu jakin batean bizi zen biztanleria*

*horren zati izatera pasatu ginen, baina besterik ez. Nire seme-alabak sekula ez ziren asaldatzen garajeko zoruan etzaten ginenean —haiek gugandik apur bat urrunduta, beren paper-zorroekin—, edo bizilagun bat gauza bera egiten ikusten zutenean. Ezta gure auzoan zenbait bonba lehertu —eta izan ziren baten batzuk—, eta, nolabait, beren eguneroko zeregina aldatzen zutenean ere. Gure seme-alabek bazekiten dagoeneko.*

*Horregatik, jazoerak gu harrapatu gintuenean, orduan pertsonatxo batzuk baino ez ziren gure seme-alaben galderak eta kezkak ezin ziren ohikotzat jo. Inoiz ez zuten galdetu “zergatik? Zergatik aitari? Zergatik guri”.*

## PROPOSATUTAKO JARDUERA

Pasarte hau irakurri eta gero, pentsa ezazu zer izan daitekeen erakunde terrorista baten mehatxupearan egotea. Deskriba ezazu mehatxatutako pertsona baten egun arrunt bat. Zerri erreparatu beharko lioke (auto azpian begiratu, segurtasun handiagoa duen etxebizitza batean bizi, tabernaz edo jatetxez maiztasunez aldatu, lanera joateko egunero ibilbide ezberdin bat aukeratu, seme-alabek ezin dute kontatu eskolan zer egiten duen bere aita/amak). Nola eragin diezaioke mehatxatuta egoteak: beldurra, estresa, mesfidantza, betebeharraren zentzua eta abar.

Iker ezazu Izuaren Mapan nor izan zen Pedro Antonio Blanco. Bilatu zenbat enpresari eta politikari hil zituen ETAk Euskal Herrian, eta iker ezazu horietako bakoitzaren erailketa. Zergatik uste duzu hil zituztela?

Terrorismoaren Biktimen Oroimenaren Zentroaren web orrian biktimen beste zenbait lekukotza irakur ditzakezu.

# 04.

# SAIOA



Azken saioan 1982ko epealdi demokratikoaren osteko terrorismoaren arazoa landuko dugu. Demokrazian zehar ETAk zoritxarrezko protagonismoa izan zuen. Jada mende berrian terrorismo yihadistak Espainiako historiako atentaturik odoltsuena eragin zuen.

Jardueren alorrean, 2004ko martxoaren 11ko atentatuetan hildako pertsona baten aitari egindako elkarrizketa baten pasarte landuko dugu, baita atentatu horietatik bizirik atera zen norbaiti bidez egindako elkarrizketa ere.

*ETAren atentatuaren ostean, suhiltzaile batzuk Hipercor merkataritza-gunearen aparkalekuaren barrualdera sartzen saiatzen ari dira (1987-06-19). Argazkia: Efe agentzia.*



## DEMOKRAZIA

1980ko hamarkadaren hasieran demokrazia egonkortuta zegoen Espainian. 1981eko Estatu kolpeak huts egin zuen, eta European integratzeko eta modernizazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako bide bati hasiera eman zitzaion. Dena den, demokraziak hainbat mehatxu terroristari aurre egiten jarraitu behar izan zuen.

Gatazkak modu baketsu eta elkarrizketatuen konpontzeko formulak ematen ditu demokraziak. Zentzu horretan, gero eta gehiago ikusten zen terrorismoa bazterreko aukera bat bezala, muturreko alderdiek berezkoa zutena. Hala ere, terroristek mina eragiteko eta denon askatasunak mehatxatzeko gaitasuna zuten oraindik.

1980ko hamarkadan zehar ETAk biktime ugari eragin zituen. Adibidez, Guardia Zibilaren Zaragozako kuartel-etxearen aurkako atentatuaren erantzulea izan zen, 11 hildako utzi zituen (horien artean bost haur), baita Bartzelonako Hipercor supermerkatuaren aurkako atentatuarena ere, 21 biktime mortal utzi zituen (horietako lau, haurrak).

Azken hau izan zen Espainiako sarraski terrorista handiena 11-M-ra arte.

Laurogeiko urte haietan terrorismo parapolizial mota bat agertu zen baita ere GAL siglen pean, Grupos Antiterroristas de Liberación. Azpizjoko ilegal honetan zenbait kargu publiko, polizia eta guardia zibil sartuta egon ziren. Haien helburua ETari aurre egitea zen, ETaren metodo berak erabiliz. 1983 eta 1987 urteen artean GALEkoek 27 hilketa burutu zituzten. Haien kasuak

zera gogorarazten digu, terrorismoaren aurkako borrokak Zuzenbidezko Estatuaren arauak errespetatu behar dituela, areriotzat duten terrorismoarekin parekatzea saihesteko.

Segurtasun Indar eta Kidegoek, legearen arabera jokatzuz, ETAko kide asko atxilotu zituzten, baita ondoz ondoko buruzagiak ere, halako moldez, non talde armatua oso ahulduta geratu zen jada 90eko urteetan, eta, batez ere, mende berriaren lehen hamarkadan.

Baina XXI. mendea beste mehatxu batekin estreinatu zen: yihadismoa. Dagoeneko aritua zen Espainian, adibidez, Madrilgo El Descanso jatetxean jarritako bonba baten bidez, non 18 pertsona hil ziren. Baina oraingo honetan gogortasun handiagoz itzuli zen, Al Qaeda New Yorkeko Dorre Bikien aurka 2001ean burututako atentatuek edota 2004ko martxoaren 11n Madrilgo lau trenetan burututakoek frogatzen duten bezala. Azken eraso hori Espainian inoiz izan den sarraski terroristarik

*GALen atentatu bat Frantziaren hegoaldean, non ETArekin inolako harremanik ez zuten Christophe Matxikote eta Catherine Brion hilda gertatu baitziren (1986-02-18). Argazkia: Luis Alberto Garcia/El País.*







Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek ETAko komando bati konfiskatutako materiala.  
Argazkia: Fidel Raso/Diario 16.



Gesto por la Pazek deitutako manifestazioa ETAk bahitutako Julio Iglesias Zamora enpresariaren askapena eskatzeko. Ibilaldiaren buruak lazo urdin handi bat darama, data horietan jaiotako sinbolo bat hain zuzen ere (Donostia, 1993/09/12). Argazkia: José Luis Nocito/El Correo.



*Konboietako baten egoera, Madrilgo Atocha geltokian, 2004ko martxoaren 11ko goizeko lehen orduan izandako leherketen ondotik. Argazkia: Efe agentzia.*

handiena izan da, eta, 2007ko urriaren 31n, atentatu horien gaineko prozesu judizialaren baitan Entzutegi Nazionalan emandako epaian frogatutzat jotzen denez, Al Qaedaekin lotura duten zelula terroristek burutu zuten.

Irakeko gerra hasi eta apur bat geroago gertatu zen 11-M-a. Irakeko gerran Espainiako Indar Armatuak nazioarteko koalizio baten barruan parte hartu zuten. Hala ere, Fernando Reinaresek bildutako informazioaren arabera, ekintza terrorista hori egiteko erabakia 2001eko amaieran hartu zen Pakistanen, mendebaldekoen interesen aurka Al Qaeda hartutako estrategiaren esparruan.

Terrorismo islamistak jardunean jarraitzen du munduko hainbat herrialdetan; berriki, Espainiak Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuak nozitu ditu, 2017ko abuztuaren 17an burutuak. Aldiz, zenbait hamarkadatan Espainiaren historia markatu duen beste terrorismo hori, ETarena, 2011n bukatu zen. Segurtasun Indarren lanak, zeinari erantzun politiko, judizial eta soziala gehitu zitzaion, bere adierazpen minimora mugatu zuen talde armatu hori.

Terrorismoari emandako erantzun sozialari dagokionez, mugimendu bakezalea 1980ko hamarkadaren erdialdean sortu zen. Gesto por la Paz edo Denon Artean-Paz eta Reconciliación bezalako

entitateek elkarretaratze isil baterako deia egiten zuten beste hilketa bat gertatzen zen aldiro. Ehunka hiritarrek, horien artean terrorismoko biktimak, parte hartzen zuten ekitaldi publiko horietan. AVT aitzindaria, Asociación de Víctimas del Terrorismo, 1981ean jaio zen jada. Ondoren beste zenbait kolektibo eta fundazio sortzen joan ziren, eta gaur egun hogeita hamar inguru dira. Horien lana eskaera sail baten inguruan ardatzen da: justizia, egia, duintasuna eta oroimena.

90eko urteetan Gesto por la Pazek kanpaina bat asmatu zuen erakunde terroristek bahitutako askatasuna eskatzeko. Arropan lazo urdin bat jar



ETAk José Antonio Ortega Lara 532 egunez itxita eduki zuen zuloa. Argazkia: Fidel Raso/Diario 16.



Miguel Ángel Blancoren hilketza jasotzeko zain, manifestariak, belauniko jarrita, Ermuako udaletxearen aurrean oihuka ari ziren: "ETA, escucha, aquí tienes mi nuca" ("ETA, entzun, hemen duzu nire garondoa") (1997/07/13). Argazkia: Fidel Raso/Diario 16.

zea zen kontua. 1996 eta 1997 urteen artean presondegietakako funtzionarioa zen José Antonio Ortega Larak 532 egun igaro zituen ETaren eskuetan, zulo txiki-txiki eta heze batean itxita. Espainian izan den bahiketarik luzeena izan zen, baina, bere historian zehar, ETak 80 pertsonatik gora bahitu izan ditu.

Espainian terrorismoaren aurkako manifestazio nagusiak 1997an, ETak Miguel Ángel Blanco Ermuako zinegotzi gaztea bahitu eta erail zuenean, eta 11-M-aren atentatuen ondotik egin ziren. Orduan milioika pertsona atera ziren kalera Espainia guztiko hiri eta herrietan. Indarkeria terrorista gaitzesteko, hiritarrek zuriz tindatutako beren eskuak goratu

zituzten. Manifestariak modu horretan adierazi nahi zuten, terroristek ez bezala, berek ez zituztela eskuak odolez zikinduta. 2004ko martxoaren 11ko terrorismo yihadistaren atentatuen ondotik, lazo beltza izan zen atentatu horien gaitzespeneren eta biktimekiko elkartasunaren adierazpena.

Terrorismoak, biktima zuzenez —hildakoak eta zaurituak— eta kalte materialez gain, beste biktima mota batzuk ere eragiten ditu, ETak mehatxatutakoak. ETA da mehatxatu kopuru handiena eragin duen taldea. Atentatu bat nozitzeko larritasunarekin bizi izan zirenak dira, eta zenbaitetan beren etxeak eta lurra utzi behar izan zituz-

ten Espainiako beste leku batean salbu jartzeko. Horietako batzuk ETaren jomugan zeuden kolektibo jakin batekoak izateagatik (ESleko kideak, alderdi konstituzionalistetakako kargu publikoak, terrorismoarekin kritikoak ziren intelektualak eta abar) zeuden mehatxatuak. Beste batzuk hainbat arrazoi partikularrengatik zeuden mehatxatuen taldean, hala nola ETari ordaintzeari uko egiteagatik edo terroristek eraso baten mehezidun bihurtzen zituen edozein gauza leporatu zietelako. Mehatxu terrorista dela eta, milaka pertsona polizia-babesarekin bizi izan ziren urteetan, eta beste zenbaitek beren etxea eta lana utzi behar izan zuten segurtasuna beste norabait bilatzera joateko.

*Biktimen oroimenez, Madrilgo Dominikoen Eskolako ikasleek "NO MAS 11-M" leloa osatu zuten atentatuen lehen urteurrenean (2005eko martxoa). Argazkia: Efe agentzia.*



**JARDUERA**

## Juan Carlos Cabrero Rojori elkarrizketa eta María Luisa Pérezi egindako bideoa

Fundación Víctimas de Terrorismoren aldizkarian Juan Carlos Cabrero Rojori egindako elkarrizketa baten pasarte bat aurkezten dugu zuek iruzkintzeko. Juan Carlosen semea, Rodrigo, Ingeniaritza Informatikoa ikasten ari zen 20 urteko gaztea, Atochako nasa batean zegoen trenetako batean bonbek eztanda egin zutenean. Hilik gertatu zen:

*“Hamahiru urte igaro dira zorigaiztoko egun hartatik. Nola gogoratzen dituzu larritasunezko ordu luze haiek?”*

*Etxetik ateratzean zarata saihesten ari zela sumatu genuen, gu ez esnatzeko. Nola ez genuen pentsatuko, bada, goiz bat gehiago ez zela, ez genuela berriro ikusiko? Berehala jakin genuen leherketena, eta telefonoz hots egin genion. Itzalita zuen, eta horregatik uste izan genuen eskolan zegoela, baina haren bila Fakultatera hurbildu, eta bertara heldu ez zela egiaztatu nuenean, mundua gainera etorri zitzaidan. Haren irakasle eta ikaskideak saminduta zeuden, haren ama eta anaia ikaratuta, eta nik ez nekien zer egin genezakeen, haren dei bat itxarotea ez bazen. Baina hori ez zen inoiz gertatu. Ospitalez ospitale ibili ginen, Atochako inguruetan barrena, hark egin zuen ibilbide posiblea errepikatu genuen. Hala ere, zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta txarragoak zantzuak. Hiria erotuta zegoen, eta linea telefonikoak kolapsatuta, baina bazkalorduan, dagoeneko garraioa ia normaltasunez zebilenean eta berak oraïndik desagertuta jarraitzen zuenean, susmo txarrak izaten hasi ginen. Geure buruak eta bihotzak ukatzen zuen hura susmatzen hasi ginen, kontzebitu ere ezin zezaketena. Salbu zegoela pentsatu nahi genuen, bere trena ez zettorrelako Alcalá de Henaresetik, Getafeko aldiriko trenean irudikatzen genuelako, eta uste genuen El Pozo, Santa Eugenia eta Téllezeko leherketek ez ziotela eragin. Haren bila genbiltzala, ez genien jaramonik egin albisteei, eta gaua sartu arte, etxera itzuli ginen arte, ez genuen jakin izan Atochako geltokian ere leherketak egon zirela. Orduan ulertu genuen bonba yihadista*

*madarikatuek hantxe harrapatu zutela ezustean. Hurrengo eguneko goizera arte ez genuen baieztapenik jaso. Gau ilun eta ikaragarria izan zen.*

*'Nahiago nukeen ni izan banintz egun hartan nasan egon zena'. Zenbatetan pentsatu duzu hori?*

*Jakina, zorigaiztoko egun haietan mila bider pentsatu nuen hori, eta milioika aldiz pentsatu dut gaur egunera arte. Batez ere bide bera egiten nuelako 20 minutu geroago baino ez, hamarkada bat neramalako ibilbide hori bera jarraitzen hain zuzen ere: Getafetik Atochara, tren-aldaketa 2. trenbidera eta Nuevos Ministeriosera ino bidaiara. Zergatik bera eta ez ni? Rodrigok dena zuen deskubritzeko, eta nik, aldiz, dena egina nuen, lasai asko joan nintekeen haren ordean. Bere ama eta biok zalantzarik gabe jarriko ginatkeen semearen lekuan, batak besteari etengabe errepikatzen genion mantra bat zen hori, lasaigarri gisa balio ez ziguna, nahiz eta behin eta berriz tematu horretan. Inork ez dugu aukeratzen uzten. Hori bezain krudela da bizitza".*

2004ko martxoaren 11n Madrilek Espainiaren historiako atentaturik okerrera jasan zuen. María Luisa Pérez Téllez kalean eztanda egin zuen trenean zegoen. Berak ez zuen aldiriko trena hartzen, baina egun hartan hala egin zuen. Ikus ezazu honako helbide honetan haren lekukotza:

**<http://avt.org/especiales/proyecto-testimonios/5>**

## PROPOSATUTAKO JARDUERA

Aipatu gelan irakurri edo entzun berri dituzun lekukotzek eragin dizkizuten gogoetak eta sentrazioak. Zer lortu nahi zuten terroristek atentatuekin? Zer uste duzu lortu zutela?



Atochako inguruetan 11-Mko biktimen oroimenez egindako ekitaldia, Fundación Víctimas del Terrorismok terrorismoa biktimen kolektibo, elkarte eta fundazioekin batera antolatua. Madril, 2004/03/18. Argazkia: Efe agentzia.



2017ko abuztuan Bartzelonan eta Cambrilsen izandako atentatu yihadisten ondotik, non 16 pertsona erail zituzten, ehunka hiritar hurbildu ziren Rambletako pasealekura biktimen oroimenez loreak eta piztutako kandelak uztera. Argazkia: Efe agentzia.

---

# GEHIAGO JAKITEKO





## ONLINE BALIABIDEAK



11Mari buruzko doluaren artxiboa. Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Zentroa (gaztelaraz CSIC, Centro Superior de Investigaciones Científicas)

<https://www.youtube.com/watch?v=kt0r8JAz7UU>



AROVITE, Archivo Online sobre la Violencia Terrorista en Euskadi. Escuela de Paz argitalpen saila (Bakeaz)

<http://www.arovite.com/es/fondo-bakeaz/escuela-de-paz/>



11M Afectados Terrorismo Elkartea. Oroimenerako trazuak eta puntadak. Poemak

<http://asociacion11m.org/que-hacemos/trazos-y-puntadas-para-el-recuerdo/poemas/>



Víctimas del Terrorismo Elkartea. YouTubeko kanala biktimen lekukotzekin

<https://www.youtube.com/user/avt>



Fernando Buesa Blanco Fundazioa. Baloretan hezteko materialak

<http://fundacionfernandobuesa.com/web/es/>



Miguel Ángel Blanco Fundazioa. Hezkuntzarako jarduerak eta Blancoren bahiketaren eta hilketaren XX. urteurrenerako web orria

<http://www.fmiguelangelblanco.es/actividades/educacion/>

<http://xxaniversario.fmiguelangelblanco.es/>



Izuaren Mapa. Terrorismoko biktimen fitxa pertsonalak. COVITE, Colectivo de Víctimas del Terrorismo


<http://mapadelterror.com>



Bizitza-oroimena. ETA talde terroristak eraildako gizon, emakume eta haurrei egindako omenaldia. RTVEren, Víctimas del Terrorismo Fundazioaren eta Rey Juan Carlos Unibertsitatearen proiektua, RTVEko funtsa dokumentalaren irudiekin

<http://www.rtve.es/memoriadevida>

## BIBLIOGRAFIA



Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey: *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Espasa Calpe, Madrid, 2010.




Baglietto, Pedro Mari: *Un grito de paz. Autobiografía póstuma de una víctima de ETA*. Espasa Calpe, Madrid, 1999.



Gálvez, Pepe: *11-M: la novela gráfica*. Panini, Girona: 2008.



Gobierno de Navarra: *Convivencia en paz y terrorismo. Un tema de hoy*. Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2014.



Reinares, Fernando: *¡Matadlos! Quién estuvo detrás del 11-M y por qué se atentó en España*. Galaxia Gutenberg Círculo de Lectores, Barcelona, 2014.

---



# PROPOSAMEN **DIDAKTIKOA**

## GAIA

Geografia eta Historia, 4. maila, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa.

## CURRICULUM OFIZIALAREKIN DUEN LOTURA

Unitate didaktiko honetako edukiak honako eduki honekin lotuta daude: "Trantsizio politikoa Espainian: diktaduratik demokraziara (1975-1982)", 8. Blokearen barruan dagoena: Gaur egungo mundua XX. eta XXI. mendeen artean.

Abenduaren 26ko 1105/2014 Errege-Dekretua, zeinaren bidez ezartzen den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren oinarrizko curriculum (BOE, 2015eko urtarrilak 3).

## HELBURUAK

Talde terroristen ekintzak identifikatu.

Espainian jardun duten erakunde terroristak ezagutu eta beren jarduera-epeak ezberdindu.

Estatuaren erakundeek aldetik eta hiritarren aldetik terrorismoari eman zaion erantzuna baloratu.

Terrorismoko biktimen lekukotzak aztertu.

## EDUKIAK

Zer da terrorismoa?

Frankismoan zehar izandako ekintza eta talde terroristak.

Trantsizio demokratikoan zehar izandako ekintza eta talde terroristak.

Demokrazian zehar izandako ekintza eta talde terroristak.

Erakundeetatik terrorismoari eman zaion erantzuna.

Hiritarrek terrorismoari eman dioten erantzuna.

Terrorismoa biktimen ikuspegitik.

## ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

Planteatutako helburuak lortzeko, gure gomendioa da, posible den neurrian, ikasleek zeregin aktibo bat izatea terrorismoari eta gertaera aipagarrienetako batzuei buruzko ikerketa, azterketa eta eztabaidan.

Oinarrizko zenbait ildo nabarmentzen ditugu proposamen honen alderdi metodologikoekin:

Landutako gaien inguruko ezagutza.

Terrorismoak gizarte mailan izan duen eraginaren analisi kritikoa.

Norberak hartzen duen jarrerari buruzko gogoeta.

Indarkeria eta gatazka sor daitezkeen hainbat egoeratan esku-hartzeari buruzko erabaki-hartzeak.

Lau ardatz horiek egituratzen dituzte irakaskuntza-ekintzaren ildoak. Ildo horiekin pentsamendu gogoetatsu eta kritiko bat sorrarazi nahi dugu gure testuinguruko indarkeriazko eta terrorismoko egoerei buruz.

## SAIOEN EGITURA METODOLOGIKOA

Gai bakoitzaren inguruan egitura metodologiko bat erabiliko dugu, bost ataletan banatua dagoen eredu komun bat jarraitzen duena eta Ikerketa bidezko Ikasketaren planteamenduetatik egokitu duguna. Landuko dugun edukiari buruzko saioek: "Trantsizio politikoa Espainian: diktaduratik demokraziara (1975-1982)", honako egitura hau jarraituko dute:

### GALDETU

Fase hau galdera batez edo zenbait galderaz osatua dago, gaiaren bidez lana bideratuko dutenak. Landuko dugun edukiari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatzea da helburua. Eztabaidaren ondoren, irakasleak gaien azalpen teoriko bat egingo du, eskola ordu bat iraun dezakeena.

### IKERTU

Une honetan baliabide sorta bat eskainiko zaie ikasleei (irakurketak, terrorismoaren gaiari buruzko aurkezpenak). Gomendatutako baliabideak izango dira, eta aurreko fasean proposatutako galderak ulertzen eta haietan sakontzen lagunduko digute. Adibidez, gertatutako egintzen testuingurua ezagutzen.

### SORTU

Une honetan proposamen praktiko bat egitea planteatuko zaie ikasleei, non aurreko fasean landutako edukiak erabiliko dituzten. Egin behar den dokumentu motari buruzko adierazle multzo bat finka daiteke, baita hura egiteko baldintzak ere.

### EZTABAIDATU

Ondoren, gainerako ikaslideek egindako proposamenak aztertu, eta kritika eraikitzaile bat sortuko da, hirukote edo lantalde bakoitzari hobekuntza bat egiteko aukera emango diona.

## EDUKIARI BURUZ JARDUERA ZEHATZAK SORTZEKO ZENBAIT PROPOSAMEN

Gomendagarria da ikasleei informazioa ematea, informazio horrekin sintesi eta analisiko zenbait jarduera egin ditzaten honako gai hauekin lotuta:

Aztertutako epealdiaren albisteei buruzko banakako bilaketa, gaiarekin harremana dutenak.

Testuinguruari, ekintza terroristen arrazoiei, ondorioei eta erakundeen eta gizartearen erantzunei buruzko zenbait konturen azterketa.

Zenbait kazetaritza-dokumentuk landutako gertaeren inguruan esaten dutenaren balorazio kritikoa.

Irakasleek banatutako informaziotik abiatuta, "denbora-lerroen" diseinua egitea. Adibidez, mural bat egin daiteke, non ikasle bakoitzak ordena kronologikoan jar dezakeen zenbait konturi buruzko informazioa (testuingurua, gertaera, talde terroristak, ondorioak, erakundeen eta gizartearen erantzunak, biktimen adierazpenak).

Aztertzen diren epealdi ezberdinetan terrorismoa erkatu.

Biktimen lekukotzen bidez ekintza terroristek gizarte baten bizitzan izan duten eragina aztertu.

Saioen egitura posible bezala, honako hau proposatzen dugu:

Ikasleen alde aurretiko lan batetik abiatu, eta hainbat bilaketa eta informazio iturri erabili: albisteak, definizioak, biktimei egindako elkarrizketak, dokumentalak eta abar.

Ikasleei egoera testuinguruan kokatzen lagunduko dien oinarritzko kontzeptuen zerrenda bat garatu.

Lana talde txikitan antolatu, eman zaien dokumentaziotik abiatuta (albisteak, testuak edo argazkiak) planteatzen zaien konturen bati erantzuteko (testuinguru sozio-politikoak, talde terroristak epealdi ezberdinetan, ekintza terroristak, ondorioak, erakundeen eta gizartearen erantzunak).

Bateratze-lana, galderak erabakitzea eta ikuspuntu ezberdinak argitzeko eztabaidatzea.

Landutako alderdi adierazgarrienak laburbiltzea.

## TENPORALIZAZIOA

1105/2014 Errege-Dekretuak ezartzen duenaren arabera, "Historiak gizarteak aztertzen ditu denboran zehar, irizpide kronologiko bati jarraiki"; hortaz, unitate hau ikasturteko azken hiruhilekoan zehar garatu beharko da.

Osorik garatzeko **4 saio** prestatu beharko dira.

## IKASKETA ESTANDARRAK ETA EBALUAZIOA

Abenduak 26ko 1105/2014 Errege-dekretuan ezarritakoaren arabera, unitate didaktiko honi dagokion ikasketa estandarra, 8. bloketik ateratakoa (Gaur egungo mundua XX. eta XXI. mendeen artean), honako hau da:

*3.3. Azter ezazu epealdi honetan zehar Espainian izandako terrorismoaren arazoa (ETA, GRAPO, Terra Lliure eta abar): erakunde terroristen sorrera eta historia, biktimen aldeko lehen mugimendu asoziatiboen agerpena eta abar.*

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikasketa estandar hau honako ebaluazio irizpideetan bana daiteke, besteak beste:

Espainian aritu diren erakunde terroristak identifikatu eta desberdindu haien jarduera epealdiak.

Terrorismo prozesuen aurrean erakundeek eta gizarteak eman dituzten erantzunak ezagutu.

Terrorismoko biktimen lekukotzekin sentikor agertzen da.

Informazioaren bilketa, antolaketa eta azterketa prozesuetan aktiboki parte hartzen du (bere paper-zorroan horrela jasota utzi du), baita informazio horretatik sortutako eztabaidetan ere.

Terrorismoaren arazoari irtenbide baketsu eta argudiatuak ekartzen dizkio.



## EBALUAZIORAKO PROZEDURA ETA TRESNAK

Ikasketa prozesuaren ebaluazioa egin ahal izateko, irakasleek eta ikasleek zenbait erregistro eduki ditzakete garatutako jardueretan zehar:

Informazioa bilatzeko prozesuetan ikasleek egindako dokumentuak.

Gelan egindako lanak (kronogramak edo denbora-lerroak, terrorismo arazoei emandako konponbide baketsuei buruzko argudiaketak, egindako galderei ezberdinei emandako erantzunak eta abar).

Bateratze-lanetan egindako azalpenak eta burutu diren lanetatik ateratako eztabaidak.

Interesgarria litzateke material horiekin guztiekin ikasleek paper-zorro bat egitea, non burututako prozesua jasota geratuko litzatekeen. Paper-zorro horren lanketa-maila formal eta gogoetatsua iturri osagarri bat izango litzateke ebaluaziorako.

Amaierako ebaluazioa ikasleek eta irakasleek batera egin dezakete zenbait irizpideren arabera, adibidez:

### Informazioa biltzeko eta antolatzeko zereginaren betetzea:

- Ezer ez
- Erdia
- Erabat

### Gaiari buruzko ezagutzak (testuinguruak, epealdi bakoitzeko talde terroristak, erakundeen eta gizartearen erantzunak, edo biktimen adierazpenak):

- Ezer ez
- Zerbait
- Erabat

### Terrorismoaren biktimekiko sentikortasuna:

- Ez ditu ulertzen ekintza terrorista baten ondorioak, zerbait urruna bezala ikusten du, beste batzuei gertatu zaien zerbait bezala, berari eragiten ez diona.
- Ekintza terrorista baten ondorioak ulertzen ditu, baina biktimengan eragin duen bizi-aldaketa ere.

### Terrorismo gatazkak modu baketsuan konpontzeko testuinguruarekiko argudiatuak eta egokiak diren ekarpenak:

- Bat ere ez
- Argudiatu gabeko baten bat
- Testuingurura egokitu gabeko baten bat
- Argudiatuak bai, baina testuinguruarekiko egokiak ez diren batzuk
- Testuinguruarekiko argudiatuak eta egokiak diren batzuk

## GAKO-GAITASUNAK

Unitate honekin garatuko diren gako-gaitasunak honako hauek dira:

Komunikazio linguistikoan gaitasuna, jarduerak burutzeko ezinbestekoa izango baita hala irakurketa ulerkerria nola testuak sortzeko gaitasuna, baita ahozko adierazmolde egoki bat ere.

Eskuduntza digitala, beste jarduera batzuk osatzeko beharrezkoa izango baita informazio- eta komunikazio-bitarteko teknologikoak erabiltzea.

Eskuduntza sozial eta zibikoa, ikasleak biktimaren lekuan jarri beharko baitu elkarbizitza baketsuaren garrantzia ulertzeko.


## BALIABIDEAK

Unitate didaktiko hau garatzeko ezinbestekoa izango da proiektzio-kanoi bat eta bozgorailuak dituen gela bat edukitzea.

Testuekin egin beharreko lanerako, gomendagarria da fotokopiak ematea, nahiz eta testuak proiektatzea, haiek ozenki irakurtzea eta proiektatutako testuarekin lan egitea aukera daitekeen.

Saioren bat informatikako gela batean egin daiteke, edo Eskola 2.0 tankerako ordenagailu eramangarriak erabiliz, zentroak halakorik baldin badu.





GEOGRAFIA ETA HISTORIRAKO UNITATE DIDAKTIKOA | **DBHKO 4. MAILA**  
**IRAKASLEENTZAKO LIBURUXKA**